

Enpresa Zientzien Fakultateko irakasleek "The Challenge of Social Innovation in Urban Revitalization" liburuaren idazketan parte hartu dute

2007/11/20

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko irakasle diren Jean Michel Larrasquet, Luxio Ugarte, Hervé Grellier eta Sain Lopezek, "The Challenge of Social Innovation in Urban Revitalization" liburuaren kapitulu bat idatzi dute.

Argitalpen hau, Amsterdameko Delft University of Technology-ko Paul Drewe, Jua Luis Klein eta Edward Hulsbergen-ek editatu dute eta Techne Press-ek argitaratu du orain aste batzuek.

Liburu honetan, 9 kasu jasotzen dira. Guztietan lurralde baten indarberritzea eman da gizarte ekimen berritzaileen eskutik. Hortaz gain, prozesu hauen konplexutasuna azaltzen duten hainbat azalpen teoriko ere jasotzen dira. Aztertu diren kasuetako batzuek, Montreal, Liverpool, Jerusalem, Nicaragua, Peru, Frantzia, The Netherlands eta Arrasaten kokatzen dira.

Gure irakasleen ekarpena, "Thinking about transfer from the Mondragon experience" kapituluaren kokatzen da. Bertan, Arrasateko esperientzia azaltzen da, bere garapenaren gakoak, egungo aktibitatea eta bere garapena etorkizunean bideratuko duten hainbat joera. Hortaz gain, hezkuntza, ikerketa, lurraldea eta esperientziaren garapenaren arteko erlazioak aztertzen dira eta zein elementu izan daitezken beste testuinguru batzuetara pasa ahal izateko.

